araba álava
foru aldundia diputación foral

gaztea
Gazteriaren Foru Erakundea
Instituto Foral de la Juventud
araba álava

Prentsa Oharra
Nota de Prensa

"Hitz Kolpez-A golpe de palabra" egitasmoa 11. edizioarekin dator eta gazteei pornografia eta sexualitate ereduei buruz gogoeta egitera bultzatuko dituen antzezlana eskainiko die

Gazteriaren Foru Erakundeak eta Vital Fundazioak bultzatzen dute ekimena eta Traspasos Kulturek garatzen du Emaizeren laguntzarekin. 14 ikastetxetara eta 1.000 gazte ingurura iritsiko da aurtengoa

Azaroaren 16tik 27ra bitartean, 30 saio antzeztuko dira ikastetxeetan eta jendearentzako sei emanaldi ireki taularatuko dira Dendarabako Kulturunean

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 11. "A golpe de palabra – Hitz Kolpez" ekimena hemen da berriro hilabete honetan, antzerki proposamen parte hartzailea dakarrela. Proposamen berriak gazteak gonbidatuko ditu pornografiari buruz hausnartzera eta pornografiak iruditeria sexualetan duen eraginari eta pantailetan zirkulatzen duten irudietatik abiatuta eraikitzen diren harreman ereduei buruz ere bai. Proiektuaren 11. edizioa Arabako eta Vitoria-Gasteizko 14 ikastetxetara iritsiko da aurten, eta 1.000 gazte inguruk hartuko dute parte.

Ana del Val Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak aurkeztu du aurtengo egitasmoa, Mikel Gómez de Segura Traspasos Kultur erakundeko zuzendari eta koordinatzailearekin eta Arantxa Ibáñez de Opacua Vital Fundazioko zuzendariarekin batera.

'Hablar Porno Hablar: Dentro del plano' izenburupean, proposamenak Sena Studio fikziozko ekoiztetxe pornografikoan sartzera gonbidatzen du, kamera baten aurrean zein atzean gertatzen dena ezagutzeko. Eszena desberdinen bidez, publikoak hainbat gaira hurbiltzeko aukera du: gorputzak, itxaropenak, botere harremanak, mugak eta sexualitatea ulertzeko modu desberdinak.

Hirugarren edizio honetan, "Hablar porno hablar" proiektuak pornografian jartzen du arreta. Errealitate hori gazteen ingurunean dago, eta hezkuntza erronka garrantzitsuak planteatzen ditu. Kontsumo zuzenetik haratago ere, pantailetan zehar dabiltzan irudikapenek gorputzei, desirari eta sexu harremanei buruzko imajinarioak eraikitzen laguntzen dute. Horregatik, proposamenak tresnak eskainiko ditu eraikitze horiek ikuspegi kritikotik aztertzeko, aurkezten dituzten ereduak zalantzan jartzeko eta irudiek erakusten dutena eta pertsonen esperientzien eta nahien aniztasuna bereizteko.

Jardueran batuko dira, alde batetik, Traspasos Kultur elkartearen esku hartze sozial eta hezitzaileko antzerkia eta, bestetik, Emaize Sexologia Zentroa-Centro Sexológico-k dinamizatutako elkarrizketa espazioa. EMAIZEk adierazi nahi izan du erotika pantailek erakusten dutena baino askoz ere anitzagoa dela. Gozatzea ez datza itxaropen jakinak betetzean edo emaitza jakin batzuk lortzean; aitzitik, gustatzen

Carmen Gómez Preciado – mcgomez@araba.eus - 945 18 18 41 – araba.eus

zaiguna, desiratzen duguna eta ondo sentiarazten gaituena aurkitzean datza. Hori horrela izatekotan, garrantzitsua da elkar ezagutzea, komunikatzea, mugak errespetatzea eta geure burua zaintzen ikastea.

Gutxi gorabehera ordu eta erdiz, parte hartzaileak esperientzia eszenikoaren parte izango dira, eta, ondoren, 30 minutu izango dituzte iritziak partekatzeko, galderak planteatzeko eta bizitakoari buruz gogoeta egiteko. Landuko dituzten edukien artean, adostasuna, desirak, genero rolak, botere harremanak eta genero indarkeriaren prebentzioa daude.

Beste behin ere egitasmoak informazioa transmititzetik haratago doan metodologia beraren alde egingo du. Antzerkiak bidea ematen du ikasgelan edo familia tartean tratatzen errazak ez diren gaiei heltzeko; izan ere, ikuskizunaren osteko eztabaidak abagunea girotzen du gazteek beren burua adierazi, beste ikuspuntu batzuk entzun eta norbere begirada eraiki ahal izateko.

Aurtengo edizioan Arabako eta Vitoria-Gasteizko 14 ikastetxeren parte hartzea aurreikusten da. Ikastetxe horiek 30 emanalditan parte hartuko dute, eta Bigarren Hezkuntzako 1.000 gazte inguruk hartuko dute parte. Antzezpenak azaroaren 16tik 27ra egingo dira Vital Fundazioaren Dendarabako Kulturunean. Erakunde antolatzaileek beren gain hartuko dute Vitoria-Gasteiztik kanpoko ikastetxeetako ikasleen garraioa.

Gainera, programak sei saio ere eskainiko ditu herritar ororentzako irekiak, gai horiei heltzeko interesa duten gazte, familia eta pertsonei hausnarketa helarazteko. Sarrerak gaurtik aurrera gorde ahal izango dira agolpedepalabra.com web orrian.

"Hitz Kolpez - A golpe de palabra" Gazteriaren Foru Erakundearen ekimena da, Vital Fundazioarekin batera sustatua eta Traspasos Kulturek, Emaizeren laguntzarekin, garatua. 2015az geroztik, proiektuak arte eszenikoak eta elkarrizketa erabiltzen ditu tresna gisa gazteen artean genero indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa sustatzeko eta errespetuan, berdintasunean eta adostasunean oinarritutako harremanak bultzatzeko.